

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

**ADIMEN GAITASUN HANDIKO HAURREN EZAUGARRIAK ANTZEMATEA
LEHEN HEZKUNTZAN. EKARPEN DIDAKTIKOAK.**

Egilea: Maitane Fernandez Luzuriaga

Zuzendaria: Izaskun Etxebarria Aizpuru

Leioan, 2014ko uztailaren 26an

© 2014, Maitane Fernández

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Marko teorikoa	4
1.1. Zer da adimen gaitasun handia?	4
1.2. Adimen gaitasun handiak azaltzeko ereduak	7
1.3. Mitoak eta uste okerrak	11
1.4. Adimen gaitasun handiko haurren ezaugarriak Lehen Hezkuntzan	14
2. Metodologia	19
3. Lanaren garapena	20
4. Ondorioak	21
5. Erreferentzia bibliografikoak	24
ERANSKINAK	28
I. Eranskina	28
II. Eranskina	29

**Adimen gaitasun handiko haurren ezaugarriak antzematea Lehen Hezkuntzan.
Ekarpen didaktikoak.**

Maitane Fernandez Luzuriaga

UPV/EHU

Gizartean dauden adimen gaitasun handiko haurrak antzematea ez da erraza. Hori dela eta, ikasle hauen ezaugarriak antzematea izan da lan honen muina. Egile eta teoria ezberdinetan oinarrituta, bi ekarpen didaktiko aurrera eraman dira. Ikasle hauek eta hauen ezaugarriak ezagutzera ematen dituen dokumentala burutu da, non kolektibo honen inguruan sinesten diren mitoak eta uste okerrak desmitifikatzen diren. Lanaren bigarren ekarpena, haurrak identifikatzerako orduan familia eta irakasleentzako lagungarriak izango diren behaketa- tresnen zerrenda izan da, edozein ingurunean egonda ere haur hauek antzematen lagunduko duena.

Hitz gakoak: Adimen gaitasun handia, Lehen Hezkuntza, ezaugarriak, antzeman, mitoak, hezitzaileak.

No es fácil identificar al alumnado con altas capacidades intelectuales de la sociedad. Por eso, el objetivo de este trabajo ha sido la identificación de este alumnado. Se han llevado a cabo dos propuestas didácticas, basadas en diferentes autores y teorías. Se ha realizado un documental que da a conocer a estos estudiantes y sus características, donde se desmitifican los mitos y falsas creencias acerca de este colectivo. La segunda propuesta de este trabajo ha sido la elaboración de una lista de herramientas de observación; lista que ayudará a familias y profesorado a la hora de identificar a los citados alumnos/as, cualquiera que sea el entorno.

Palabras clave: Alta capacidad intelectual, Educación Primaria, características, identificación, mitos, educadores/as.

It is not easy to identify students with high intellectual capacities of the society. Therefore, the objective of this project has been the identification of these students. Two didactic proposals have been carried out based on different authors and theories. There has been realized a documentary that gives to know these pupils and its characteristics, where the myths and false beliefs about this collective are demystify. The second proposal of this project has been the development of a list of observation tools; a list that will help families and teachers to indentify these students, in any environment.

Key words: High intellectual capacity, Primary Education, characteristics, identification, myths, educators.

Sarrera

Lan honen xedea adimen gaitasun handiko gaia da. Gaur egun, deitura eta etiketa asko dira pertsona hauek bereizteko erabiltzen direnak, baina sarritan, edozelan, sinonimoak bailira moduan erabili ohi dira: superdotatua, jenioa, prodijioa, dohainduna, goiztiarra, bikaina, aparta ...

Egungo hezkuntza sisteman, adimen gaitasun handiko ikasleek, ez dute beti behar beste laguntza jasotzen. Nahiz eta legeak ikasle hauen ezaugarriak eta premia zehatzak onartu eta aurreikusi egiten dituen, ikastetxeak beharrezkoak diren neurritz eta baliabidez hornitzeko (Eusko Jaurlaritza, 2006). Dena den, ez da batere erraza haur hauek antzematea. Horregatik, ikasle hauen garapen pertsonal eta sozialerako eta egokitzapen kurrikularra jasotzeko ezinbestekoa da eskola eta familien arteko lankidetzeta.

Adimen gaitasun handien inguruan dauden estereotipo, mito eta uste okerrak asko dira sinesten direnak. Mundu honetan, adimen gaitasun handiko haurrak, beste barik, inolako zailtasunik gabe, gizartean arrakasta eta lanbide ona lortuko dutela uste ohi da. Alabaina, gaur egungo errealitatea oso ezberdina da. Gainera, gaitasun handiko pertsonak ezaugarri anitzez eratutako talde heterogeneoa osatzen dute; familia, kultura, hezkuntza- eredu eta gizarte- ingurune oso ezberdinetatik datozenak eta elkarrengandik ere oso desberdinak direnak. Hori dela eta, pertsona hauen markoa oso zabala eta heterogeneoa denez, lan honen oinarria, Lehen Hezkuntzako adimen gaitasun handiko ikasleak izango dira.

Ikasle hauen ezaugarrietan oinarrituta, hauen isla den dokumental bat burutuko da. Askotan, familiek, haien seme- alabak bereziak, desberdinak, beren adineko umeak baino azkarragoak ... diren susmoa dute, irakasleek izan dezaketen aierua bezala. Gurasoen zein irakasleen susmoak eta zalantzak argitzeko sortua izango den dokumentalean, adimen gaitasun handiko ikasleak eta beren ezaugarriak ezagutzera emango dira. Horretarako, gure ekarpenak, gaurko gizartean sinisten diren mitoak kanporatuko ditu, hauen ikuspegi zabala eskainiz. Azken batean, guraso eta irakasleei ikasle hauek antzematen laguntzeko gida izango da.

Bestalde, lanaren amaieran, familia eta irakasleei ikasle hauen identifikaziorako lagungarri izan dakiekeen galdetegi eta behaketa- tresnen zerrenda bilduko da, etxean zein ikasgelan haur hauek antzematea erraztuko duena. Izan ere, dokumentatuta eta informatuta dauden guraso eta irakasleak, umeen arreta zuzenerako berme onena izan daitezke.

1. Marko teorikoa

1.1. Zer da adimen gaitasun handia?

Adimen gaitasunean buruz hitz egitea adimenaz aritzea da. Adimen-ereduak eta kontzeptuak aldatzen joan dira. "Adimen- gaitasun handiak" terminoak, arlo batean, baten baino gehiago edo arlo gehienetan potentzial handia aurkezten duten ikasleak barne hartzen ditu, hau da, arlo bakarrean edo gehiagoetan batzuek bestekoaren gainetik dauden ikasleak dira.

Azken mendean, aurreko kontzeptuaren inguruan hainbat definizio eta eredu sortu diren arren, denek dute adimena oinarri gisa. Gaur egun, adimena, bizitza osoan zehar gara daitekeen kontzeptu dinamiko eta aldakorra bezala ulertzen da, gurekin batera garatzen eta hazten doana. Gure inguruneek, norberak heredatzen dituen potentzialtasunak eta bakoitzaren alde pertsonalak, motibazioa, pertseberantzia, ahalegina ..., hurrenez hurren, baldintzatzen dutena.

Azken garaian gaitasun handia egin da adimenari buruzko ikusmolde tradizionala, zeinaren arabera adimena arlo akademikoari baino ez zegokion. Ikuspegi itxi eta mugatzaile hark adimena, adimen kognitiboarekin parekatu egiten zuen eta haren neurria Adimen- Koefizienteak (AK)¹ zehaztu.

¹ Adimen Koefizientea, test bidez kalkulaturako adimen- adina banako bakoitzaren adin kronologikoaz zatitzean, eta ehunetik biderkatzean lortzen da; adimena neurtzeko tresna gisa sortu zena. Lakar Iraizoz, O. (2011). Zer da, ordea, adimena? [Bertsio elektronikoa]. *Elhuyar aldizkaria*, 272, 33-41, 2014-06-22an hartua, hemendik, <http://zientzia.net/artikuluak/zer-da-ordea-adimena/>

Aurrerago aipatu bezala, azkenaldian, “adimen” hitza beste arlo batzuetan ere erabiltzen hasi da, eta bestelako gaitasun batzuk ere esleitzen ari zaizkio. Egon badaude autore anitz eremu honetan aurrerapen handiak lortu dituztenak.

R. J. Sternberg (1997), adimenaren izaera azaltzeko, Adimen Koizientetik haratago joan zen, eta adimena, hiru adimen- motatan bereizi zituen: adimen analitikoa, sortzailea eta praktikoa. Bide batez, egileak adimen horiek uztartzea ezinbestekotzat jotzen du, bizitza pertsonal zein profesionalean arrakasta izateko. Renzulli-ren hitzek adierazi bezala: “La historia no recuerda a las personas que únicamente tuvieron puntuaciones altas en CI o que aprendieron bien sus lecciones” (Renzulli, 1986, 59).

Gardner-ek (2001, 34), bere aldetik, adimenaren kontzeptua zabaldu eta aberastu zuen, testuinguru kulturala nagusituz eta ikusmolde berria emanez, adimena era honetara definitu zuela: “La inteligencia no es una dimensión unitaria, sino más bien un conjunto de capacidades, talentos o habilidades cognitivas. La inteligencia es la capacidad para ver problemas y crear productos que puedan ser valorados dentro de uno o más ámbitos culturales”. Autore hau (1984; 1998), adimen anizkoitzen teoriak mintzo zen, adimen tradizionalaz gain, beste zenbait adimen ere badirela nabarmenduz.

Ereduen ondorioz, gaitasun handien kontzeptuak eta garatutako ideiak aldatzen jarraitzen dute. Gaitasun- handia eraikuntza multidimentsionaltzat hartzen da, non bizitza osoan zehar ingurunearekin interakzioan dauden osagai eta abilezia ezberdinek etengabeko aldaketa, garapena eta eboluzioa jasotzen dabilta.

Superdotatua, talentuduna, goiztiarra, bikaina, jenioa, prodijioa, aparta... adimen gaitasun handiko haurrak era askotara deituak izan dira eta izaten dira. Sarritan, hurrei sinonimoak izango balira bezala etiketa horiek jartzen zaizkie. Terminoak argitzea, beraz, egokiena litzateke hainbatetan etiketak bata bestearenetik bereizi gabe erabiltzen direlako. Talde honetan gizabanakoen aniztasuna kontuan hartzen da, homogeneotasuna alde batera utziz. Kontzeptu horiek guztiak adimen- gaitasun handien marko zabal honen barnean baitaude.

Adimen gaitasun handien terminoen inguruan autore ezberdinek maneiatzen dituzten zenbait definizio komunak dira:

Adimen gaitasun handia, superdotatua... ezaugarri pertsonaletan, egitura kognitibo eta adimen- gaitasunetan errekurtsio handiak dituzten ikasleak dira. Ikasle hauek malgutasun kognitibo handia dute eta honi esker, informazioa (ahozkoa, matematikoa, figuratiboa) edozein modutara prozesatzeko eta kudeatzeko orduan sekulako trebezia adierazten dute.

Dohaina gizabanakoen jarrera espezifikoko edo abilitate zehatz batean agerrarazi daiteke: talentu akademikoa, artistiko- figuratiboa, sortzailea, soziala, talentu logikoa, matematikoa eta ahozko talentua, batzuen artean. Talentudun haurrak arlo jakin batean edo batzuetan gaitasun handiak dituztenak dira. Gerta liteke errendimendu handia erakustea arlo jakin batean, baina gainerako eremuetan errendimendua ertaina edo baxua izatea.

Castelló-k eta Batlle-ek (1998) talentuentzat honako sailkapena proposatu zuten, talentua, era honetara bereiziz: talentu bakunak, anizkoitzak, konplexuak eta konglomeratuak.

Talentu bakunak eta anizkoitzak, talentu matematikoa, logikoa, soziala, sortzailea eta ahozkoa barne hartzen ditu. Ikasle batek talentu bakuna izango du, baldin eta aurretik aipatutako talentu bakar batean gainerako ikasleengandik gailentzen bada edo trebetasun handia erakusten badu. Hainbat talentu bakunak dituzten haurrak, aldiz, talentu anizkoitza dute. Esaterako, talentu matematikoa eta logikoa duen haurra.

Talentu konplexuak, bestalde, talentu akademikoak eta artistiko- figuratiboak osatzen dute. Baina talentu konplexua eta sinplea elkartzen direnean, talentu konglomeratua osatzen dela esaten da. Esaterako, ikasle batek bere talentu akademikoa erakustez gain, bere talentu espaziala ere agerian uzten duenean.

Haur *goiztiarrak*, aldiz, ezagutzak eta ahalmenak beste ikasleak baino arinago bereganatzen dituztenak dira. Goiztiartasuna, prozesu ebolutiboa da, non ikasle hauek adimen gaitasun handikoak izatera heldu daitezkeen. Dena den, ikasle hauek ez dute

adimen gaitasun handikoak izatera heldu beharrik. Egon badaude ikasle batzuk, nerabazarora heltzean edo aurrerago, haien adineko haurrekin orekatu egiten direnak.

Terminoekin amaitzeko, Espainiar Hezkuntza eta Kultura Ministerioak, adimen gaitasun handiko ikasleak izendatzeko beste izen batzuk erabiltzen ditu, hainbat liburu, informe eta lanetan argitaratuta agertzen direnak (Hezkuntza eta Kultura Ministerioak, 2000)²:

Prodijsioek haien adinerako ohikoa ez den lan bat burutzeko gai dira. Arlo zehatz batean helduekin lehiatu ahal izateko zerbait ekoizteko ahalmena dute. Ikasle hauek, haien gaitasuna goiztiarra eta miresgarria izategatik bereizten dira.

Jenioak adimen eta sormenean ezohiko gaitasunak edukitzeaz gain, gizarteak onartu eta goretsi egiten duen lan garrantzitsua sortzeko trebeak dira, norbere kulturarentzat sortua dena.


1.2. Adimen gaitasun handiak azaltzeko ereduak

Adimen gaitasun handia azaltzeko orain arte dauden teoriak anitzak dira eta urteen poderioz aldatzen joan direlako. Egile eta teoria diferenteak, adimen gaitasun handien inguruan dauden eredu eta ikuspuntu ezberdinak batzen dituzte, autore hauek gailentzen direla: Renzulli, Mönks, Gágne, Stenberg... Hala ere, eredu guztien oinarrian adimenaren kontzeptua dago.

Hasteko, errendimenduan oinarritutako ereduetan, Renzulli-ren (1978) "*Hiru eraztunen teoria*" aurkitzen da. Egile honek, adimena faktore anizkuna eta ez unitario gisa definitzen zuen. Bere aburuz, adimena ez zen nahikoa gaitasun handien kontzeptua azaltzeko.

Autore honen ereduak hiru ezaugarrien konbinaketan oinarritzen da: bataz bestekoaren gainetik dagoen trebetasuna, zereginekiko ardura handia eta sormen handia.

² López Andrada, B. (2000). *Alumnos precoces, superdotados y de altas capacidades*. Madril: MEC. Lan honetan: Fernández Reyes, M^aT. & Sánchez Chapela, M^aT. (2010), *Cómo saber si mi hijo tiene altas capacidades intelectuales. Guía para padres*. (39- 40. orr.). Sevilla: Díada.



1. Irudia. Hiru eratzunen eredua. Renzulli (1978)


Renzulli-k (1978) zioenez, hiru ezaugarriek garrantzia bera zuten. Haur batek, beraz, adimen gaitasun handikoa izatera heldu zitekeen hiru horiek uztartzean.

Renzulli-ren ekarpena, aurretik existitzen ziren teorien gehikuntza izan zen, baina ekarpen honek ez zituen ikasleen ezaugarri pertsonalak aurreikusitakoak, ezta adimen gaitasun handiko ikasleen prozesu eta garapen ebolutiboan eragiten zuten faktoreak ere. Baina, ikasle hauentzako, eguneroko bizitzan, une oro, haien parekoekin interakzioan ibiltzea, oso esanguratsua izan da beti.

Van Boxtel eta Mönks-ek (1988), Renzulli-ren ereduan oinarrituta, honi falta zitzaizkion gizarte-aldagaiak sarrarazi zizkion (familia, eskola eta lagunak), *“Elkarrekiko mendetasun triadikoaren”* ereduari bidea emanaz. Azken eredu hau, paradigma soziokulturalan oinarritzen da.

Paradigma honek gizabanakoaren testuinguru sozial eta kulturalaren indarra nabarmentzen du. Gizabanakoaren faktore indibidualak eta sozialak era egokian interakzioan daudenean, adimen gaitasun handia eta talentua garatu dezaketela proposatzen du. Norbanakoaren berezko ezaugarrietan gailentzeaz ez ezik, bakoitzaren familia eta testuinguru hezigarri, sozial eta kulturalak ere kontuan hartzen ditu.

Horregatik, autore honek, adimen gaitasun handia, sei faktoreen arteko elkarrekin eta konbinazioa bezala definitu zuen: gaitasuna, inplikazioa, sormena, eskola, lagunak eta familia.



2. Irudia. Mönks- en eredu triadikoa (1992)

Geroago, Renzulli-k (2001), aurretik aipatutako autorearen ekarpena, bere azken argitalpenetan gehitu zuen, gaur egun, *“Hound’s Tooth Model”* deiturikoa (*“Oilo-hankaren eredu”*), ingurune, izaera eta balore alderdiak barne hartzen dituena.

Jarraitzeko, Stenberg-en (1993) *“Superdotazioaren teoria pentagonalaren”* ekarpenak Renzulli-ren ereduarekin ere zerikusia du, ikasleen testuinguru kulturalari garrantzia ematen baitio. Bertan, adimen gaitasun handiak zehaztu ahal izateko gutxienez bost irizpide behar direla planteatzen da: arrarotasun- irizpidea, produktibitatea, balioa, frogagarritasuna eta bikaintasuna.


Arestian aipatutako autore honek (1986) ere, eredu kognitiboan oinarritutako *“Adimenaren teoria triarkikoa”* osatu zuen. Stenberg-ek, teoria honetan, gaitasun kognitibo handia, sormena eta dimentsio praktikoa uztartu zituen. Adimenaren izaera, hiru azpiteoriatan sailkatu zituen, non hiru adimen- motekin bat datozen:

- Adimen analitikoa, osagaien azpi-teoriarekin lotzen du. Gizabanako hauek antolakuntzarako gaitasun handia dute.
- Adimen sortzailea, esperientzien azpi-teoriarekin bat egiten du. Gizabanako hauek duten sormenari esker, egoera baten aurrean beste edonork topatuko ez lituzkeen soluzioak aurkitzeko gai dira.
- Adimen praktikoa, testuinguruaren azpi-teoriarekin bat dator. Gizabanakoak testuinguru ezberdinetara egokitzeko eta moldatzeko ahalmena dute.

Stenberg-ek (1997) pertsona batek bere bizitza pertsonalean zein profesionalean arrakasta izateko, hiru adimen hauek uztartu behar dituela zioen. Hori horrela izanik, adimen arrakastatsu bat izateko, ezinbestekoa liteke adimen horiek elkarri lotuta joatea.

Beste alde batetik, Gagné-k (1985; 1991; 1993) gaitasuna eta dohaina bereizten dituen eredua, "GTBE", osatu zuen. Adimen gaitasun handia eta dohaina bereizten diren eredu honetan, autoreak, adimen gaitasun handiak dituenak gaitasun naturalak aurkezten dituen haurra dela deritzo. Haurrak, era espontaneoan eta trebatuak izan gabe, gaitasunak agertzen dituenen batik bat. Halaber, haur hauek gaitasun naturalekin zerikusia duten arlo batean edo bitan batz bestekoaren gainetik nabarmenduko dira.

Dohaina duten ikasleek, aldiz, giza jarduerekin zerikusia duten arlo batean edo gehiagoetan nabarmenduko dira. Talentuak, arlo zehatz batean lan sistematikoaren bidez garatutako gaitasunen menderatzeari erreferentzia egiten baitio.



3. Irudia.GTBE ereduaren bertsio laburra (2009)

Gagné (1993), gaitasun naturalak dohainaren elementu osagarri moduan jokatzen duten ondoriora heldu zen eta beraz, gaitasun handirik gabeko haurra, dohainduna izatera ezin daitekeela heldu, ondorioztatzen.

Amaitzeko, Gardner-en aburuz (1984, 1996, 2001), adimen-kozientea ez da gizakion adimena epaitzeko dagoen neurri bakarra. Berak zortzi eremu ezberdinetan

banatu zuen giza adimena: inteligentzia linguistikoa, adimen logiko- matematikoa, adimen espaziala, adimen zinetiko- korporala, adimen musikala, adimen naturalista, pertsona arteko adimena eta pertsona barruko adimena; hots, *adimen anizkoitzen teoria* osatu zuen.

Autore honek (1998), adimena moldagarria dela eta beraz, gerora garatu egin daitekeela nabarmentzen du. Adimena ez datorkigula guztiz zehaztuta jaiotzen garenean eta hortaz, heziko garen testuinguruak (kultura eta norbere ingurunea) adimenaren garapena baldintzatuko duela. Era honetan, norbere esperientziei, heziketari, inguruneari esker... adimena garatuz joango da, batzuk gehiago garatuko dutelarik, eta besteek, ordea, gutxiago.

Gainera, bere azken ikerketetan, Gardner-ek (2001), beste adimen- mota bat aztertu zuen, Adimen Existenziala. Adimen honetan gizakiak hainbat gaiari buruz dituzten zalantzak argitzen saiatuko litzateke, hala nola, heriotza eta bizitzarekiko zentzua; bakea, barkamena eta esperantzarekiko baloreen esanahia; kosmosean dugun lekua...

1.3. Mitoak eta uste okerrak

Urteetan zehar adimen gaitasun handien inguruan sortuz joan diren aurreiritziak eta uste okerrak asko izan dira. Sarritan, estereotipo eta mito horiek ezagutzen ez denaren edo kezkatzen gaituenaren aurrean babesteko erabili ohi diren errekurtsioak dira. Normalean, komunikabideetatik iristen den informazio desegokiak pentsamendu eta uste okerretara erooten gaitu; prentsa sentsazionalistako artikuluren bat, kasu isolaturen bat edo adituen iritziak diren bezalakoak. Informazio desegokiak aurreiritziak baino ez dituzte indartzen. Uste hauetan zer esana eta eragina ere badute, psikologoek, pedagogoek edota zientziak berak.

Uste okerrak, beraz, familia eta hezkuntza hezitzaileek mugatzen duten portaeran eragile zuzenak izaten dira. Sinesmen hauek kontrajartzeko eta jarrera diferente bat hartzeko bestelako informazio iturririk ez baitituzte.

Hume-k (2000), era liluragarri eta poetikoan, adimen gaitasun handien inguruan dauden aurreiritzi eta estereotipo sozialak desagerrarazten laguntzeko, talde honen ezaugarrien eta beharizanen ezagutzetarantz aurrera pausu bat eman nahian, hurrengo hitzak bildu zituen: “Utilizando una analogía, me imagino estos prejuicios agazapados detrás de las murallas de una ciudadela medieval, las cuales, tras resistir durante siglos, fueron finalmente derribadas no por las armas, sino por la razón del siglo de las luces.” (Hume, 2000, 55).

Halabeharrez mitoen aurrean sinesmenak eta jarrerak aldatzea komeni da, lan honen hasieran esan bezala, horiek etiketa desegokiak jartzera daramatzalako. Jarraian, orain arte adimen gaitasun handiko ikasleen inguruan egon diren eta dauden aurreiritzi eta mito nagusienak aurkezten dira, hainbat autoreen aipamenak elkartu eta uztartu direlarik (Eusko Jaurlaritza, (2013); Martín Gálvez, J. (2000); Arroyo, S., Martorell, S. eta Tarragó, S. (2006); Fernández Reyes, M^ªT. eta Sánchez Chapela, M^ªT. (2010)).

Mitoez gizabanakoen hainbat esparru ukitzen dituzte: bizitzan (arloan akademikoan eta profesionalean) lortuko duten arrakasta, arlo sozial eta emozionala, osasun fisikoa eta psikologikoa, goiztiartasunaren presentzia edo gabezia eta maila soziokulturala.

Mitorik aipagarrienak honako hauek dira:

- ❖ *Adimen gaitasun handiko ikasleek arrakasta lortzen dute nahi beste ikasketetan, eta ez dituzte inolako zailtasunik arlo akademikoetan.*

Ikasle hauek ez dute zertan arlo guztietan onak izan behar; arlo batean soilik nabarmendu daitezke eta horrek, ikasketetan porrotera eroan ditzake. Adimen koizientea bakarrik balioztatzen baldin bada, errakuntza eta nahasmen ugarira eramán gaitzake. Haurren benetako gaitasunak zeintzuk diren ezagutzeak, hauei eman ahalko zaien trataeran lagunduko du.

- ❖ *Adimen gaitasun handiko ikasleek beren kabuz ikasteaz gain, inolako laguntzarik gabe, nahi beste arrakasta akademikoa lor dezakete.*

Ikasle hauek heldu baten laguntza eta bultzada behar dute. Heldu baten eredia. Azkar eta erraz ikasten duten arren, norbaiten orientabideak beharrezkoak dituzte, norbere gaitasunak garatu ahal izateko. Gauzak irakasten eta azaltzen

dizkien pertsona baten laguntza eta ikasteko prestatu ohi dituen. Era honetan, ikasle hauen ezaugarriei erantzun egokia ematen saiatuz.

- ❖ *Normalean, adimen gaitasun handiko ikasleak eskolan aspertu egiten dira eta haien ikaskideentzat kritika guztien helburu erraz izaten dira.*

Eskolak ikasle hauen gaitasunei eta premiei erantzun egokia ematen ez badie, ikasleak aspertu egin daitezke. Hau, ikaskuntza dinamikak eta ohiko metodo errepikakorrek erakartzen ez dielako gerta daiteke. Ikasle hauek erakartzeko motibazioa eta sormena bultzatzea komeni baita.

- ❖ *Adimen koiziente altua izateak, arlo akademikoan eta profesionalean, arrakasta ziurtatzen du.*

Zereginetik eta ikasketetik jarraitasuna eta ardura mantentzea da, gauza guztien gainetik, arlo akademikoan eta profesionalean arrakasta lortzen laguntzen duena. Ikasleek arrakasta edukitzeak edo ez, norbere ahaleginean eta esfortzuan oinarrituko da.

- ❖ *Adimen gaitasun handiko ikasleak AKA 130tik gora dutenak dira, horregatik, erraza izaten da ikasle hauek antzematea.*

Izan daiteke ikasle batzuetan gaitasun hori ez bereiztea, eta horregatik, ikasle hauek ezin antzematea. Gainera, ezinbestekoa da familiak eta hezkuntza- elkarrekin antzemate- prozesua zorroztasunez eta elkarlanean egitea. AK altua izateak ez duelako esan nahi adimen gaitasun handiak dituenik. AK ez da ikasle hauen ezaugarri bakarra, faktore eta berezitasun gehiago daude tartean.

- ❖ *Adimen gaitasun handiko haur hauek goiztiarrak dira, eta txiki- txikitatik haien ezaugarriak antzeman dakizkieke.*

Haur hauek gehienetan goiztiarrak direla, ez du esan nahi beti horrela denik. Izan ere, adimen gaitasun handiko ikasle guztiak ez dira goiztiarrak, goiztiarrak direnak, adimen gaitasun handikoak ez diren moduan. Batzuk garapen normala izan dezakete, eta beste batzuk, ordea, berantiarra ere.

- ❖ *Zaila izaten da ikasle hauekin tratatzea. Lotsatiak eta bakartiak izan ohi dira eta arazoak izaten dituzte beren adineko hurrekin erlazionatzeko.*

Gizarte- harremanetarako arazoak ez dira soilik adimen gaitasun handiko haurretan ageri. Gainerako edozein hurrek ere gizarteratzeko arazoak izan ditzake. Baina egia da ikasle hauek haien interesa partekatzen duten pertsonetarantz jotzen dutela, eta hauek, gehienetan, haur nagusiagoak edo helduak direla.

- ❖ *Ikasle traketsak, ahulak eta gaixotiak dira, kirol jardueretan hain trebeak ez direnak eta gizarte honetan, emozio- arazoak izateaz gain, ondo moldatzen ez dakitenak. Ikasle hauek arlo akademiko eta profesionalean arrakasta lortzen dutenak diren arren, gizarte- arloan porrot egiten dute; dena den, guztiz kontrakoa gerta daiteke, hau da, liderrak izateko gaitasuna izan dezakete eta osasun emozionala ezin hobea.*

Adimen gaitasun handiko ikasleen talde honetan, aurretik aipatu bezala, aniztasun handia dago. Ikasle hauek era askotakoak izan daitezke, eta horregatik, beren ezaugarriengatik arreta egokia jasotzea beharrezkoa dute. Normalean, ikasle hauek haien ingurunera zuzentasunez egokitzen dira. Haur hauek haien adineko lagun talde batean guztiz integratuta egonez gero, besteengan eragina erraz izaten dute, taldearen liderrak bihurtzen direlarik.

- ❖ *Gaitasun handiko ikasle gehien maila soziokulturala altua izan ohi da, garapen eta hezkuntza arretarako aukera gehiago baitaude, gizarte eta kultura- maila baxuagoetan baino.*

Adimen gaitasun handiko ikasleak edozein maila sozial eta ekonomikoan ager daitezke. Arrazak, kulturak eta gizarte mailak ez dute zerikusirik adimen gaitasun handiak izatearekin. Hala ere, ikasleak bizi diren inguruneak badauka gaitasunen garapenean bere eragina.

1.4. Adimen gaitasun handiko haurren ezaugarriak Lehen Hezkuntzan

Adimen gaitasun handiko hurrek hainbat ezaugarri eratutako talde heterogeneoa osatzen dute. Haur hauek, norbere ezaugarriak besteengandik

ezberdintzen dituztenak izateaz gain, izaera diferenteak dituztenak eta testuinguru ugarietatik, ikastetxeak, lagun taldeak, auzoak, hiriak ... esaterako, etorritakoak dira. Haur hauen familia eta gizarte- ingurunea mundu bat da, eta horietan nagusitzen diren xedeak eta baloreak, testuinguru eta familia bakoitzaren arabekoak dira. Kultura bakoitzak bere erara balioetsi egiten baititu gizakiaren ahalmenak.

Hori dela eta, norbanako bakoitzak dituen kultura, hizkuntza, ideia eta baloreak... haurren gaitasun edo trebetasun intelektual, kognitibo eta emozional/sozialen garapena mugatzeko erabakigarriak dira.

Arestian aipatu bezala, adimen gaitasun handiko ikasle hauen ezaugarriak anitzak diren arren, izan badituzte hainbat ezaugarri komunak direnak. Sarritan, ezaugarri horiek ohi baino goizago agertzen zaizkie eta Lehen Hezkuntzan sendotu, biribildu eta hobetzen joaten dira. Lehen Hezkuntza, gure Hezkuntza Sistemak zehazten dituen etapetako bat da, adin kronologikoaren arabera antolatutakoa. Baina adin kronologikoa artifiziala denez, ikasleengan ez da beti garapen bera ematen. Hala ere, gu, kolektibo honen ezaugarriak zehazten saiatu gara. Ikasleei ezaugarri hauek hainbat esparrutan antzeman dakizkieke; eremu kognitiboan, sormena eta irudimenaren alorrean, eremu sozial eta emozionalean, eta motibazioa eta intereseko esparruan, alegia.

Horregatik, ikasle hauek identifikatzea beharrezkotzat jotzen da, haien heziketa-premiak asetzeko eta bide batez, haien gaitasunak ahalik eta gehien garatu ahal izateko. Ikasle guztiek haien premiei erantzuten dien hezkuntza jasotzeko eskubidea baitute. Era berean, eskola porrota³ ekiditeko saiakera egiten delarik.

Ondoren, sailkatuta agertzen diren ezaugarriak, hezitzaileek, hots, irakasleek zein gurasoek, adimen gaitasun handiko ikasleak antzeman eta horien ezaugarriak ezagutzeko adierazleak dira; begi bistaz igarri ahal dakizkiekeen berezitasunak, batik bat.

³ Populazioaren %2a, adimen gaitasun handikoak direla estimatzen da eta horietatik, %35ek baino gehiagok eskola porrota jasaten dutela.
Nuevo, M. (n.d.). Los niños superdotados sufren fracaso escolar. 2014-07-14an hartua, hemendik, <http://www.guiainfantil.com/blog/educacion/inteligencia/los-ninos-superdotados-sufren-fracaso-escolar/>

Eremu kognitiboa

- Ematen dioten informazioa erraz uler dezake, eta denbora pasa arren gogoratzen du. Oroimen handia du.
- Zenbait motatako informazioa elkar erlazionatzeko gai da, eta hortik ideia berritzaileak sortzen ditu.
- Arreta, abstrakzioa, sintesi eta kontzeptualizaziorako gaitasun handia du.
- Kontzeptu abstraktuak erabiltzen ditu eta ikurrak eta sinboloak (zenbakiak) manipulatzeko erraztasuna du.
- Ikasteko estrategiak erabiltzen ditu.
- Bere baliabide linguistikoak bere adineko haurrena baino aberasgarriagoak dira.
- Erraz eta abiadura handiz ikasten du, eta ez du gauzak errepikatzerik behar. Zeregin mekaniko eta errepikakorrak gorroto ditu.
- Induktiboki ikasi egiten du (Silverman, 1984;1993).
- Jakin mina du eta batzuetan, interes ugari agertzen du bere adinerako ohikoak ez diren gauzetan.
- Gaitasun metakognitiboak garatzen ditu.
- Hizkuntza modu aberats eta zehatzean erabiltzen eta interpretatzen du.

Sormena eta irudimena

Sormena, osotasunean garatzen ez den eta gizaki guztiok dugun giza gaitasun garrantzitsua da. Guilford (1967) izan zen giza- adimenari sormena esleitu zion lehenetarikoa, eta honi beste hainbat autorek jarraitu zioten. Beranduago, Renzulli-k (1977) sormena, pentsamendu originala bezala ere ulertu zuen; ideia berriak sortzeko gaitasun gisa, alegia. Gaur egun, adimen gaitasun handien inguruan berba egiterakoan, sormena, ezinbesteko ezaugarria bilakatu da eremu honetan. Zerbait berritzailea eta originala sortzeko ahalmena dena.

Ikasle hauek, arte plastikoetan, idazmenean edo musikan egin dezaketen ekoizpenetik harago, sormena, haien egunerokotasunean agerian geratzen den trebetasuna da, zailtasunen bat konpondu behar duten momentuan esaterako.

Hauek dira ezaugarri nabarmenenak:

- Jolasak, ipuinak eta marrazkiak sortzeko, asmatzeko eta egokitzeko irudimen handia adierazten du.
- Originaltasuna erakusten du arte plastikoetan, ideia eta metodo artistikoak batzerakoan.
- Egunerokotasunean ager daitezkeen arazoak ebazteko, irudimenezko soluzioak planteatzen ditu material arruntak erabiliz.
- Kuriosoa da; mota askotako galderak egiten ditu eta kalitate handikoak. Sarritan, ernegatu daiteke bere galderari arin ez bazaio erantzun.
- Jolasak sortu edo egokitu ohi ditu, eta poesia, abestiak eta hitzaldiak sortzeko gai da inolako laguntzarik gabe.

Eremu sozial eta emozionala

Adimen gaitasun handiko ikasle bakoitzak berezko izaera bakarra du. Norberak bizi dituen esperientziak bereak dira, bere izaera eta nortasuna era batekoa izatea ahalbidetzen dutena. Hala ere, talde kolektibo honek, maiz hainbat sentimendu eta jarrera aurkezten ditu haien pareko adinekoengandik ezberdinak direnak. Hona hemen komunean izan ditzaketen ezaugarriak:

- Autokritikoa da eta iritzi oso independenteak eta propioak izan ohi ditu.
- Umore- sen handia du, bere ikaskideentzako umore zaila dena eta noizbehinka ondo ulertzen ez dutena; landua, ironikoa eta garrantza izan daiteke.
- Aurretik arrazonamenduz azaldu ez zaizkion arauak, ez ditu onartzen.
- Saiatua eta perfekzionista da.
- Bihurria edo geldiezia izan daiteke.
- Giza arazoekiko kezka aurkezten du. Berdintasunean, egian, zintzotasunean, justizian... sinesteko joera du.
- Irakasleak edo berak proposatzen dituzten gaiak lantzera bultzatzen ditu beste ikaskide batzuk.
- Beldurra dio huts egiteari.
- Heriotzarekiko kezka agertzen du.

Eremu sozial eta emozionalean disinkronia ebolutiboa aipatzea garrantzitsua da. Terrassier-ek (1992) adimen gaitasun handiko ikasleek duten arazoetako bat hura dela planteatu baitzuen; disinkronia arazo moduan amaitzeak edo ez, ikasleen ezaugarri eta testuinguruaren araberakoa izanik. Hauxe, adimen gaitasunaren eta garapen emozionalaren artean dagoen garapen desorekatua da, sarritan, ikasle hauen ezaugarrietako bat dena. Horregatik, desoreka horrek, ikaslean zailtasunak ager ditzake.

Arestian aipatutako autoreak (1992) bi disinkronia mota bereizi zituen: barnekoa eta soziala. Barne- disinkroniak, adimen gaitasunean dagoen garapena eta garapen emozionalaren arteko erritmoen aldeak bereizten ditu. Disinkronia sozialak, bere aldetik, ikasle hauek haien adinekiko adimen gaitasun aurreratua duten baieztapenetik abiatzen da, haien adimen gaitasunean besteekiko duten desoreka nabarmenduz. Honek, ikaskideekin erlazionatzeko arazoak sortzen dituelarik.

Horrenbestez, barne- disinkroniak adimen intelektual eta garapen emozionalaren erritmoa bere baitan hartzen duen bitartean, disinkronia sozialak, gizabanakoen gizarteratzean oinarritzen da.

Motibazioa eta interesa

Gagné-k (1985) motibazioa, ikasleengan beharrezkoa den ezaugarritzat hartzen du, motibaziorik gabe, edozein gizabanakoren dohaina ez bailiteke ikusiko eta beraz, dohain hori ez litzateke ekoiztuko. Motibazioa adimen gaitasun handiko ikasleek duten berezko ezaugarria da, non euren helburuak lortu arte, arazo barik, haien atzetik jarraitzeko kemena izan dezaketen.

- Interesatzen zaizkion arloetan lan bikainak egiteko gai da, erronka horretan gogo biziz parte hartuz eta bukatu arte ez du etsitzen.
- Lanak errepikakorrak direnean aspertzeko joera du.
- Bere kabuz lan egiteko gai da eta ez du laguntza askorik behar.
- Intereseko zereginetan denbora luzez egon daiteke lanean, motibazio handiz, saiatuz eta ahalik eta hoberen egiten.
- Jakin- min handia agertzen du zenbait gairen inguruan: unibertsoari zentzua topatzen dio, bizitza eta heriotza bezalako gaiak interesatzen zaizkio, ondo eta

gaizki dagoenarekiko interesa du, baita patua, jatorria edo erlijio diren gaien ingurukoa ere.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da badaudela adimen gaitasun handiko haurrak ere, asperger sindromea, AGNH-a, dislexia, ezintasun sentsorialak ... dituztenak, eta horrek, sarri, haien identifikazioa zaildu dezake.

2. Metodologia

Lanarekin hasteko, lehendabizi gaiaren inguruan literatura zientifikoan dauden ekarpenak aztertu izan dira; gehien bat, eremu anglofonoak. Adimen gaitasun handien terminoarekin eta haren ereduarekin hasiz, hauen inguruan dauden mitoak eta uste okerrak ezagutzera helduz eta ikasle hauen ezaugarriak aztertzerako paso eginez. Aurreko puntu banak zehatz-mehatz berrikusi ostean, errealitatera hurbiltzen den ekarpen didaktikoak sortu dira. Lanak, familia eta irakasleak, Lehen Hezkuntzako adimen gaitasun handiko ikasleen ezaugarriak antzemateko, hauek baliabidez hornitzea helburu duela.

Alde batetik, Lehen Hezkuntzako etapan dauden adimen gaitasun handiko ikasleak eta haien ezaugarriak ezagutzea xede gisa duen dokumentala sortu da. Azken hau apurka- apurka gehitzen joan diren ideiez osatu da. Honen aurretik, hainbat dokumental ikusi izan dira, horietatik agertzen diren hainbat burutazio eta ideia datozenak. Sortzaileak eta originalak izaten saiatu gara, eta ideiak argitasunez adierazten.

Dokumentala, minutu laburreko pasadizo erreal batekin hasten da, non protagonista Estatu Batuetako biolinista famatua dugu, Josuah Bell, alegia. Harridura sortzeko eta edonoren arreta bereganatzeko eginga izan da, gure inguruan dauden kontraesanak azaleratzen dituenak. Kasu erreal honek hurrengo galderara eroango gaitu: *Talentua edo adimen gaitasun handiak antzemateko gai izango gintezke, ezusteko testuinguru batean, edozein ingurune izanda ere? Eta eskolan?* Galderak adimen gaitasun handien inguruko mitoei bidea emango die, sinesten diren aurreiritziak desmitifikatuz eta horien azalpen laburra eskainiz. Dokumentalean agertzen diren bideo eta audio (nire

ahotsa) grabaketak gure ingurugirora egokituak dira. Leku ezberdinak adierazi nahi izan dira, gu inguratzen gaituen ingurunea, Arriagako antzokia edo Deustuko “La Fundicion” aretoa diren bezalakoak. Inguruneak duen garrantzia azpimarratuz, bata bestea baino ezagunagoa. Bukatzeko, ikasle hauek Lehen Hezkuntzako etapan izan ditzaketen ezaugarriak aipatzen dira, banan- banan irudien bidez adieraziz. Argazkien eta musikaren selekzioa egin da, hauen aukeraketa eta trataerak muntaia sortzea ahalbidetu duena. Gainera, audioa, irudi eta bideo bakoitzarekin bat dator, ematen diren azalpenak horietan islaturik agertzen direla.

Bestetik, ikasle hauen identifikaziorako lagungarriak diren baliabideak, bai galdetegiak zein behaketa- tresnak sakon aztertu ondoren, lanaren amaieran, gutxi batzuk baino ez dira aurkezten (Ikus *I. Eranskina*). Aukeratu izan diren behaketa- tresnak adimen gaitasun handien kontzeptua osotasunean barne hartzen dituztenak dira, irakasle eta familiari zuzendurikoak eta hauei, ikasleen identifikazioa erraztuko diena.

3. Lanaren garapena

Gratu Amaierako Lanari hasiera emateko, ikasturtea aurrera zihoala, Unibertsitatean formazio saioak izan genituen. Saio horiek geneuzkan heinean, gure tutorearekin ere biltzen gindoazen. Norbera bere gaiari buruz ahalik eta gehien ezagutzeko, datu base garrantzitsuak kontsultatzea beharrezkoa izan zen, *Dialnet* eta *Google Akademikoa*, kasuak kasu. Behin informazioa bilatzen eta aztertzen hasi ginela, bakoitzak bere lanaren nondik norakoan pentsatzen hasi behar izan zuen. Hasiera batean aukeratutako gaia oso zabala zenez, bilaketa horiek gaia mugatzera eroan gintuen. Apurka- apurka gure lanaren muina zehaztuta geratu zelarik. Horrela, lan honen izenburua osatuta geratu zen, *Adimen gaitasun handiko haurren ezaugarriak antzematea Lehen Hezkuntzan. Ekarpen didaktikoak*, alegia.

Izenburua osatuta, helburua ezagututa eta gaia zehaztuta alde teorikoaren azterketa hasi zen. Autore, teoria, eredu, kontzeptu ezberdinak ikertuz joan ahala, marko zabalarekin egin genuen topo. Bada, autoreen ekarpenak laburtzea eta era

sintetikoa paperera ekartzea baino ez zen geratzen; eta behin azterketa osatuta, ekarpn didaktikoak sortu genituen.

Lehenik eta behin, proiektu hau dokumental baten sorrera izan dela aipatzekoa da. Dokumentala sortzearen erabakia ideia ugarien sorburua izan zen. Ideiak hara, ideiak hona, azkenean, adimen gaitasun handiko ikasleak eta hauen ezaugarriak ezagutzera ematen dituen ekarpna da. Lehen Hezkuntzako ikasle hauen familia eta irakasleei zuzenduta dagoena. Hasteko, gidoia idatzi egin zen, grabaketak aurrera eramateko lekuak pentsatu ziren, batzuk aukeratuz eta beste batzuk baztertuz. Ondoren, argazkiak aukeratu, tratatu eta uztartu ziren. Bukatzeko, audioa grabatu zen, audio grabaketak nahasi eta behin material guztia batuta eta bilduta zegoenean muntaia osatu zen.

Lan honetatik eratorritako beste ekarpna, adimen gaitasun handiko ikasleak antzematen lagunduko duten eta erabilgarriak diren behaketa- tresnen zerrenda osatua da. Aurretik esan bezala, hau ere familia eta irakasleei zuzendurikoa, hauek baitira uneoro haurren inguruan dabilzanak.

Lan honen garapenari esker, adimen gaitasun handien gaiak gaur egungo Hezkuntza Sistemari eta gizartean sortzen dituen kezkak, zalantzak eta aurreiritziak ezagutzera posiblea izan da. Amaiera- amaieran osatutako ekoizpena edo fruitua, sistema guzti honen parte izango delarik.

4. Ondorioak

Egun, adimen gaitasun handiko haur asko oharkabean geratzen dira, neskak, gehien bat,⁴ norbere abileziak eta gaitasunak gizarteari erakutsi ezinik. Eurek ere ez

⁴ Adimen gaitasun handiko ikasleak antzematerakoan, 10 haur identifikatzen direnetik, 7 mutilak izaten dira eta 3 besterik ez neskak.

baitakite zenbaterainoko ahalmena duten, eta hortaz, ez zaie behar duten arreta eskaintzen.

Adimen gaitasun handiko haurren eta horien ezaugarrien gainean oinarritzen diren mitoak anitzak dira, eta ez dute ezer onik ekartzen ikasle hauengan. Aurreiritziek zenbaitetan beldurra eta beharizana sortzen dute, besteak beste, haurrengan, haien familian eta eskoletan. Gure ekarpenean, beraz, mito hauek kanporatzea eta desmitifikatzea esanguratsua ikusi dugu, era honetan adimen gaitasun handia identifikatu eta zuzentasunez aditu daitekeen ezaugarri baten lez ulertarazteko. Dokumentalak Lehen Hezkuntzako aroan dauden ikasle hauen ezaugarriak islatzea eta ezagutzera ematea izan du helburu. Aldi horretako ikasleen identifikazioa hobetzeko bideratuta dagoena; eta antzemate honek, ikasleei, haiek jarraitu beharreko bidean lagunduko dien esperantzarekin.

Orain arte, hainbat testu eta pasartetan irakurritako baieztapenarekin bat nator, ikasle hauek haurrak moduan ikusi behar ditugulako: “Un niño superdotado es ante todo un niño, y por este motivo debe ser tratado como tal; ellos solamente son más inteligentes, piensan de un modo cualitativamente diferente de sus compañeros y son tan originales que no dejaran de sorprendernos” (Arroyo, S., Martorell, M. eta Tarragó, S., 2009, 48).

Ene aburuz, gizarteak eta guk geuk, adimen gaitasun handiko ikasleak ahalik eta lasterren antzemateak, lehen baino lehen ikasle hauen ezaugarriei erantzutea ahalbidetuko duela, ulertu behar dugu. Begi bistakoa dena ukatzerakoan, orduantxe zailtasunak eta trabak agertuz doazela, gaitasun handiko ikasleen ezaugarriez konturatu nahi ez dugunean, batik bat. Horregatik, gaur egungo gizarteak adimen gaitasun handiko pertsonen eta gainerakoen artean dauden ezberdintasunak ezagutzea eta aditzea premiazkoa litzateke, lehenengo hauek, hezkuntza aberasgarria eta adierazkorra jaso dezaten. Izan ere, adimen gaitasun handikoa izateak ez du esan nahi etorkizunari begira halabeharrez bide erraza duenik. Baina ikasle hauek bizitza beste modu batera ikusten dute eta sormenak, horretan, zerikusi handia dauka. Sormenari esker, hauek, haien eguneroko bizitzan agertzen diren arazoan eta erronken aurrean, irudimentsuak, asmatzaileak eta originalak dira. Sormena, kolektibo honek

duen berezitasun nabarmena da. Jarrera sortzailea izatea, irtenbideei erremedio bat planteatzea da.

Dena den, lehenengo- lehenengo urratsa ikasle hauek antzematea da eta hala, aurrerapausoa da ikasleen ezaugarriak ezagutzea eta dituzten premiei erantzutea. Baina lanean zehar aztertutako autore guztien ekarpenez osatutako dokumentala, familia zein irakasleentzako nahikoa ez balitz, egon badaude ikasle hauek identifikatzen lagunduko dituzten baliabideak, galdetegiak eta behaketa- tresnak, hurrenez hurren.

Atzenean, lan honetan adimen gaitasun handien kontzeptua osotasunean hartzen duten galdetegi eta testen zerrenda bildu da (Ikus *I. Eranskina*). Teknika objektiboen bidez, biztanleria osorako era berean aplikatu, zuzendu eta interpretatu egiten dira test eta galdetegien emaitzak. Hala ere, egunerokotasunean irakasle eta familiei ikasleak identifikatzen erraztuko dizkieten teknikak, aukeratu direnak, bestelako hauek dira: teknika subjektiboak. Hauek adimen gaitasun handien esparru zehatza era soilean neurtu beharrean, sormena, adimenak, izaera, motibazio ... diren bezalakoak, ikasleen interesa, zaletasuna, aktibitateak edo portaera zehatzak deskribatuko dituzten galdetegiak eta testak dira, irakasleei eta familiari zuzendutakoak. Behaketa- tresna hauetatik lortu daitekeen informazioa aberasgarria izaten da, ikasleak eguneroko bizitzan duen jarreran arreta jartzen duelako. Are gehiago, ez da mugatzen ikasleak esaten duenera, haurraren gertuko pertsonak ere zer esana izaten dute, familiak, irakasleak eta ikaskideak, alegia. Honela, familia eta eskolaren arteko harremana indartzen da. Edonor ezagutu daiteke inguratzen dituzten pertsonengandik, ez norberak bere buruaz aurkezten duen iritzi bakarragatik.

Azkenik, lan hau burutzeak adimen gaitasun handien munduan barneratzeko aukera eskaini dit, ikasle hauek tratatzeko beste ikuspuntu bat emanez. Hauen egoeran jartzeko eta hobeto ulertzeko aukera izan da. Aberasgarria. Talde anitza dela jakiteko aukera, ez dagoela "a" edo "b" aukeraterik. Bakoitza den modukoa onartu behar dugula eta horretarako, guztion parte hartzea beharrezkoa da. Ingurunea baita ikasle hauengan eragilerik nabarmenena. Pertsonalki, hemendik aurrera, etorkizun hurbil

batean, ikasle hauekin topo egiteko aukera izatea gustatuko litzaidake, eta hauekin lan egiteko aukera izan.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Arroyo, S., Martorell, M. & Tarragó, S. (2009). *Los superdotados. La realidad de una diferencia. Diagnóstico, asesoramiento, atención escolar, integración social*. Bartzelona: Terapias Verdes.

Artola González, T., Barraca Mairal, J. & Mosteiro Pintor, P. (2005). *Alumnos con Altas Capacidades: quiénes son y cómo tratarlos*. Madrid: Entha.

Benito, Y. (1992). *Desarrollo y educación de los niños superdotados*. Salamanca: Amarú.

Castelló, A. & Batlle Estapé, C. (1998). *Aspectos teóricos e instrumentales en la identificación del alumno superdotado y talentoso: propuesta de un protocolo*. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa: hezkuntzaren psikologia saila, 2014-05-17an hartua, hemendik:

<file:///C:/Documents%20and%20Settings/JUANAN/Mis%20documentos/Downloads/Dialnet-AspectosTeoricosEInstrumentalesEnLaIdentificacionD-2476205.pdf>

Eusko Jaurlaritz (2013). *Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila, 2013-10-28an hartua, hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100012e_Pub_EJ_altas_capacidades_e.pdf

Fernández Reyes, M^ªT. & Sánchez Chapela, M^ªT. (2010a). *Cómo saber si mi hijo tiene altas capacidades intelectuales. Guía para padres*. Sevilla: Díada.

Fernández Reyes, M^ªT. & Sánchez Chapela, M^ªT. (2010b). *Cómo ayudar a un hijo con altas capacidades intelectuales*. Sevilla: Díada.

Fernández Reyes, M^aT. & Sánchez Chapela, M^aT. (2010c). *Cómo detectar y evaluar a los alumnos con altas capacidades intelectuales. Guía para profesores y orientadores*. Sevilla: Díada.

Gagné, F. (1985). *Giftedness and Talent: Reexamining a Reexamination of Definitions*. *Gifted Child Quarterly*. Lan honetan: Tourón, J. (2004), De la Superdotación al Talento: Evolución de un paradigma (19-23. Orr.). Madril: Pearson education.

Gagné, F. (1991). *Toward a Differentiated Model of Giftedness and Talent*. Lan honetan: Tourón, J. (2004), De la Superdotación al Talento: Evolución de un paradigma (19-23. Orr.). Madril: Pearson education.

Gagné, F. (1993). *Constructs and Models Pertaining to Exceptional Human Abilities*. Lan honetan: Tourón, J. (2004), De la Superdotación al Talento: Evolución de un paradigma (19-23. Orr.). Madril: Pearson education.

Gómez, M^aT. & Mir, V. (2011). *Altas capacidades en niños y niñas: detección, identificación e integración en la escuela y en la familia*. Madrid: Narcea.

Gonzalez Simon, M., Guenaga Garai, G. eta Hernando Saratxaga, G. (2012). Lidergoa eta Kapital Emozionalaren kudeaketa enpresetan. *UZTARO* 80 (57-58), 51- 75.

Lakar Iraizoz, O. (2011). Zer da, ordea, adimena? [Bertsio elektronikoa]. *Elhuyar aldizkaria*, 272, 33-41, 2014-06-22an hartua, hemendik, <http://zientzia.net/artikuluak/zer-da-ordea-adimena/>

López Andrada, B. (2000). *Alumnos precoces, superdotados y de altas capacidades*. Madril: MEC. Lan honetan: Fernández Reyes, M^aT. & Sánchez Chapela, M^aT. (2010), Cómo saber si mi hijo tiene altas capacidades intelectuales. Guía para padres. (39- 40. orr.). Sevilla: Díada.

Martín Gálvez, J. & González, M^aT. (2000). *Alumnos precoces, superdotados y de altas capacidades*. Madrid: CIDE: Hezkuntza eta Kultura Ministerioa, 2014-06-20an hartua, hemendik:

<file:///C:/Documents%20and%20Settings/juanangel/Mis%20documentos/Downloads/08073.pdf>

Nuevo, M. (n.d.). Los niños superdotados sufren fracaso escolar. 2014-07-14an hartua, hemendik:<http://www.guiainfantil.com/blog/educacion/inteligencia/los-ninos-superdotados-sufren-fracaso-escolar/>

Prieto Sánchez, M^ªD., Sánchez López, M^ªC. & Garrido Gil, C. (n.d.) *Características del alumnado con altas capacidades*. Murtziako Unibertsitatea: hezkuntza, zientzia eta ikerkuntza kontseilaritza, 2014-05-19an hartua, hemendik: http://www.imunozy.org/files/9/Necesidades_Educativas_Especificas/aula_pt/conocer_mas/diversidad-murcia/UNIDAD8.pdf

Renzulli, J. S. (1978). *El concepto de los tres anillos de la superdotación: un modelo de desarrollo para una productividad creativa*. Lan honetan: Fernández Reyes, M^ªT. & Sánchez Chapela, M^ªT. (2010a). Cómo saber si mi hijo tiene altas capacidades intelectuales. Guía para padres. (22- 24. orr.) Sevilla: Díada.

Rogado Hernández, M^ª I. (1995). *La educación del profesorado con altas capacidades*. Lan honetan: Fernández Reyes, M^ªT. & Sánchez Chapela, M^ªT. (2010c), Cómo detectar y evaluar a los alumnos con altas capacidades intelectuales. Guía para profesores y orientadores. (30-31 orr.). Sevilla: Díada.

Silverman, L. K. (1992). *El desarrollo emocional de los superdotados a través del ciclo vital*. Lan honetan: Benito, Y. (1992), Desarrollo y educación de los niños superdotados (165-172. orr.). Salamanca: Amarú.

Silverman, L. K. (n.d.). Characteristic os Giftedness Scale: A Review of the Literature. 2014-07-15ean hartua, hemendik:
http://www.malonefamilyfoundation.org/whatisgifted_identify2.html

Stenberg, R. (1993). *Procedures for identifying Intellectual Potential in the Gifted: A perspective on alternative. Metaphores of Mind En Heller*. Lan honetan: Fernández Reyes, M^ªT. & Sánchez Chapela, M^ªT. (2010a). Cómo saber si mi hijo tiene altas capacidades intelectuales. Guía para padres. (24-25. orr.) Sevilla: Díada.

Sternberg, R. & Lubart, T. (1997). *La creatividad en una cultura conformista. Un desafío a las masas*. Bartzelona: Paidós Transiciones.

Van Boxtel, H. W. & Mönks, F. J. (1988). *Los adolescentes superdotados: una perspectiva evolutiva*. Lan honetan: Fernández Reyes, M^ªT. & Sánchez Chapela, M^ªT. (2010a). *Cómo saber si mi hijo tiene altas capacidades intelectuales. Guía para padres*. (24- 25. orr.) Sevilla: Díada.

ERANSKINAK

I. Eranskina.

Irakasleentzako galdera- sortak eta eskalak:

- a. Eusko Jaurlaritzako dokumentua (2013). *Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak*. Lehenengo eranskinean antzemateko behaketa tresnak daude.
- b. Gaitasun handiko haurrak antzemateko galdera- sorta. Iturria: Luz Pérez eta Carmen López (2007). "Hijos Inteligentes ¿educación diferente?" S. Pablo argitaletxea.
 - ❖ Gaitasun handiko haurrak (3-4 urte) antzemateko galdera- sorta.
 - ❖ Gaitasun handiko haurrak (5-8) antzemateko galdera- sorta.
 - ❖ Gaitasun handiko haurrak (9-14 urte) antzemateko galdera- sorta.
- c. EDAC. Adimen gaitasun handiko ikasleak antzemateko eskala. Iturria: Barraca eta Artola (2004).

Aplikazioa: 3^o- 6^o maila bitartean.
- d. Renzulli-ren eskalak (SCRBSS). Goi mailako ikasleen portaeraren ezaugarriak ebaluatzeko eskalak. Iturria: Joseph Renzulli, Linda H. Smith, Alan J. White, Carolyn M. Callahan, Robert K. Hartman eta Karen L. Westberg.

Aplikazioa: Lehen Hezkuntzako mailetan.
- e. GATES. Adimen gaitasun handiko haurrentzako ebaluazio eskala. Iturria: Gilliam, Carpenter eta Christensen (2000).

Aplikazioa: 5-18 urte bitartean.

Familiarentzako galdera- sortak, behaketarako:

- a. Behaketarako galdera sorta familiarra. Iturria: Eusko Jaurlaritza (2013).
- b. Cuestionario de Desarrollo Psicoevolutivo Cadis. Iturria: Fernández Reyes eta Elís Guillén (2001). (II. Eranskina).

II. Eranskina.

CUESTIONARIO DE DESARROLLO PSICOEVOLUTIVO CADIS

Fuente: Fernandez Reyes y Elías Guillén (2001)

DATOS PERSONALES:

Nombre de niño/a:

Fecha de nacimiento: Edad:

Centro escolar: Curso Académico:

Nombre del padre:.....

Edad: Profesión:

Nombre de la madre:

Edad: Profesión:

Número de hermanos: Lugar que ocupa:

Personas que conviven en el domicilio:

Dirección:

Teléfono: e-mail:

1. BLOQUE: EMBARAZO, PARTO Y NEONATO

1. Desarrollo del embarazo.
2. Desarrollo del parto.

3. Observación de alguna conducta que le llamara la atención en los primeros meses de vida del niño/a.
4. Conducta relacionada con el sueño.
5. Era tranquilo, inquieto ... u otras características.
6. Aparición de la dentición.

2. BLOQUE: PSICOMOTRICIDAD

7. Edad en la que empezó a caminar (hubo gateo, edad de aparición...).
8. Edad en la que comenzó a recortar.
9. Edad en la que montó en bici, patines, etc.
10. Lo considera hábil o patoso. Razonar la respuesta mediante alguna vivencia.
11. Recuerde alguna situación especial relacionada con el desarrollo motor de su hijo.

3. BLOQUE: LENGUAJE

12. ¿Cuándo comenzó a hablar? (sus primeras palabras)
13. ¿Qué errores propios de la edad cometía (hiperrregularizaciones, utilización incorrecta de los pronombres...)?
14. ¿A que edad era capaz de mantener una conversación?
15. ¿Qué le llamaba la atención del lenguaje de su hijo? ¿A alguien más le llamaba la atención?
16. ¿Hace preguntas cuando no conoce una palabra y luego la utiliza correctamente?
17. Cuando expone sus opiniones, ¿es capaz de razonarlas utilizando un vocabulario preciso?
18. En cuanto al lenguaje escrito, ¿Cuándo comenzó a reconocer las letras?

19. ¿A qué edad empezó a leer?
20. ¿Recuerda cuándo reconoció las letras del abecedario?
21. ¿A qué edad leyó su primer libro?
22. ¿Recuerda alguna situación, palabras o expresiones que usaba su hijo que eran propias de niños mayores?

4. BLOQUE: DIVERSAS HABILIDADES COGNITIVAS

23. ¿Cuándo empezó a contar?
24. ¿Cuándo era capaz de contar hasta 10?
25. ¿A qué edad construía puzles de 20 piezas?
26. ¿A qué edad leía cifras de varios dígitos?
27. ¿A qué edad era capaz de distinguir al menos 6 colores?
28. ¿Tiene buena memoria? Ponga un ejemplo.
29. ¿Desde qué edad es capaz de ver una película entera? (Dibujos animados y normal).
30. ¿Presenta interés por aprender determinadas materias o su interés es general?
31. ¿Le gustan las tareas fáciles o difíciles?
32. ¿Es capaz de realizar dos cosas al mismo tiempo? Ponga un ejemplo.
33. Describa alguna situación que le ha llamado la atención relacionada con la memoria.

5. BLOQUE: AUTONOMÍA

34. ¿Cuándo controló esfínteres?
35. ¿Cuándo supo vestirse solo?
36. ¿Recuerda cuando fue capaz de asearse sin ayuda?

37. ¿Cree que su hijo está inmaduro en esta área? ¿Por qué?
38. ¿Le gusta ir bien vestido (combinar ropa, elegir colores que armonicen, etc.)?
¿Desde cuándo?

6. BLOQUE: SOCIAL- EMOCIONAL

39. ¿Juega con los niños de su edad en el colegio o en la calle?
40. ¿Le gustan los juegos de sus amigos o prefiere otros? ¿Cuáles?
41. ¿Le gusta relacionarse con niños más pequeños, iguales o mayores que él?
42. ¿Qué opinión tiene de sus iguales?
43. ¿Es líder, es uno más o pasa desapercibido para sus compañeros?
44. ¿Conoce el nombre y apellidos de todos los niños de su clase?
45. ¿Se preocupa por temas de injusticia, medio ambiente, pobreza...?
46. ¿Cree que tiene problemas de relación con los iguales? Exponer una vivencia que lo ilustre.
47. ¿Es obediente normalmente? ¿Cumple las normas? ¿Las rebate?
48. ¿Cuándo no suele obedecer?
49. ¿Está contento normalmente?
50. ¿Existe algún problema desde su punto de vista? Descríbalo y diga a qué cree que es debido.

7. BLOQUE: CREATIVIDAD

51. ¿Tiene imaginación y fantasía? Ponga algunos ejemplos.
52. ¿Inventa juegos o juguetes?
53. ¿Le pone nombre a sus creaciones?
54. ¿Ha tenido o tiene algún amigo imaginario?

55. ¿Da respuestas inusuales o poco frecuentes?

8. BLOQUE: ACADÉMICO- ESCOLAR

56. ¿Está contento en su curso?

57. ¿Tiene buen rendimiento?

58. ¿Le gusta ir al colegio? ¿Por qué?

59. ¿Qué es lo que más le gusta del colegio?, ¿y lo que menos?

60. ¿Tiene apoyo por parte del profesorado?, ¿sabe la opinión que tienen de su hijo?

61. ¿Lo ve capacitado para estar en un curso más avanzado? En este caso, ¿sería un problema la convivencia con niños un año mayor que él?

62. ¿Toca algún instrumento musical? ¿Cuál?

63. Si realiza estudios musicales reglados, ¿en qué curso se encuentra?

9. BLOQUE: CONSIDERACIONES FINALES

64. ¿Cree que hay algún superdotado, talento o persona con alta capacidad intelectual en la familia?

65. En caso de que su hijo lo fuese ¿qué harían ustedes como padres respecto al centro escolar, familia, hijo...?